



Inprimaki hau betetzeko Adobe Acrobat Reader doako irakurgailua instalatuta izan behar duzu.

Oyón-Oionen, _____(e)ko_____aren_____ (e)(a)n

BILDU DIRA: Batetik, José Manuel Villanueva Gutiérrez jauna, Oyón-Oiongo alkatea, eta, bestetik, _____
jaun/andrea, SEXUA _____ emakumea _____ gizona _____ ez-bitarra
adin nagusikoa, _____ (e)ko bizilaguna,
zehazki, _____ helbidean bizi dena,
_____ NAN zenbakia duena, eta e-mail _____
aurrerantzean, bere izenean eta interes propioengatik jardungo duen
dohaintza-emailea.

Alderdi biek aitortzen diote elkarri kontratatze eta ordezkatzeko dituztenen izenean esku hartzeko betebeharra, eta

HAU ADIERAZTEN DUTE:

- I. Dohaintza-emailea Oyón-Oiongo Udalarari Udal Artxiboan gorde eta modu horretan kontserbatu eta zabaltzeko eman nahi dizkion argazkien jabea da.
- II. Bestalde, Oyón-Oiongo Udalak interesa du dohaintza horretan, argazkiak aipatu artxiboan sartzeko

Alderdi biak daude ados argazkien lagapenarekin eta onarpenarekin, hurrenez hurren, eta, beraz, dokumentu hau formalizatzea erabaki dute. Jarraian datozen klausulak aplikatuko dira:

KLAUSULAK

LEHEHENGOA.- Dokumentu honen bitartez, dohaintza-emaileak atxiki den zerrendan jasotako argazkiak emango dizkio dohaintzan Oyón-Oiongo Udalarari, zeinak onartu eta eskertu egiten dituen. Horrez gain, jarraian datozen klausuletan ezarritako betebeharrak hartuko ditu Udalak.

Dohaintzak berekin dakar Oyón-Oiongo Udalak epemugarik gabe eta eskusiboki jasoko dituela argazkien ustiaketa-eskubideak; besteak beste, eta adibide gisa, erreproduktzio- eta banaketa-eskubideak, baita argazkien funtsa publikoki ezagutzera emateko eskubidea ere.

BIGARRENA.- Argazkiak Udal Artxiboan gorde eta kontserbatuko dira.

HIRUGARRENA.- Oyón-Oiongo Udalak, dohaintzaren xede izan diren argazkiak ahalik eta hoberen kontserbatu eta tratatzeko baliabideak jartzeaz gain, argazki horien zabalkuntza sustatuko du, aurrekontuek horretarako aukera ematen duten heinean, horretarako egokitzat jotzen dituen bitartekoak erabiliz (argitalpenak, erakusketak, etab.).

LAUGARRENA.- Dohaintza-emailearen berariazko baimenik gabe, Udalak ezingo die hirugarrenei laga dohaintzaren xede izan den argazki-funts osoa edo zati bat. Aldiz, ez da baimenik beharko erakusketak eta antzeko ekintzak antolatzeke behin-behineko lagapenak egiten direnean.

BOSGARRENA.- Dohaintza-emailearen argazkiren bat argitaratzen bada, Oyón-Oiongo Udalak dohainik emango dizkio dohaintza-emaileari obra horren bi ale.

SEIGARRENA.- Argazkiak dohaintza-emailearenak direla adierazteko konpromisoa hartzen du Oyón-Oiongo Udalak, argazki horiek zabaldu edo argitaratzen baditu.

ZAZPIGARRENA.- Irudiak interesdunen esku jarriko dira, Udal Artxiboan.

Udalak interesdunei jakinaraziko die inola ere ezingo dituztela argazkiak guztiz edo partzialki erreproduzitu, aldatu, etab. Halaber, ezingo dituzte argitaratu, Udalaren berariazko eta idatzizko baimenik ezean, eta, baimena izanez gero, adierazi beharko dute argazkiak dohaintza-emaileak eman dituela.

Goian adierazitako guztiarekin ados daudela eta dena onartzen dutela adierazteko, aldeek dokumentu honen hiru ale sinatu dituzte, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

Argazkien betekizunak, webgunerako ematen badira:

Argazkien ezaugarriak

Zabalera: Argazkiak 900 pixel zabal izango dira, gehienez ere. Altuera:

Argazkiak 750 pixel altu izango dira, gehienez ere.

Bereizmena: 72 pixel. hazbeteko. Formatua: JPG.

Kalitatea: 80.

Kolore-modua: RGB.

Argazki kopurua: 20 argazki.

Alkate-udalburua:
José Manuel Villanueva Gutiérrez

Interesduna